



PRIETO ETXANO, Eunate

Eusko Jaurlaritzako Bekaduna
Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea.
Manuel de Lardizabal 2
20009 Donostia

BIBLID [1137-1951 (1997), 2; 47-56]

Katalanaren Lege berria: orainaldia eta etorkizuna

(The new Law of the Catalan language: present and future)

Katalanaren Lege berria 1997ko abenduan onartu zuen Kataluniako *Parlament*-ak diputatuen gehiengoaren adostasunez. Legearen erronka nagusia, katalanaren erabilera gizarteko eremu orotan indartzea da; alabaina, horretarako darabiltzan bitartekoek ez dute eztabaida franko baino sortu, bizitza politikoan behintzat. Lan honen bidez, hurbileko etorkizun batean Katalanaren Legeak gizaritari ekar diezazkiokeen aldaketak ezagutzeko abagunea izango dugu, baita bere aurrikuspenek errealitatean sor ditzaketen zenbait arazo mahai-gaineratzeko ere.

El *Parlament* de Catalunya aprobó en diciembre de 1997 la nueva Ley del Catalán con el acuerdo de la mayoría de los diputados. El principal reto de la ley es fomentar el uso del catalán en todos los ámbitos de la sociedad; sin embargo, los medios que utiliza para ello no han hecho más que suscitar polémicas, por lo menos en la vida política. Mediante este trabajo tendremos oportunidad de conocer los cambios que la Ley del Catalán pueda producir en la sociedad en un futuro próximo, así como para plantear varios problemas que sus previsiones puedan hacer surgir en la realidad.

Le *Parlament* de Catalogne approuva en décembre 1997 la nouvelle Loi du Catalan avec l'accord de la majorité des députés. Le principal défi de la loi est d'encourager l'usage du catalan dans tous les milieux sociaux; pourtant, les moyens utilisés dans ce but n'ont fait que susciter la polémique, tout au moins dans la vie politique. Au moyen de ce travail nous pourrions connaître les changements que la Loi du Catalan peut produire dans la société dans un proche avenir, ainsi qu'exposer plusieurs problèmes que ses prévisions peuvent faire surgir dans la réalité.

1. **Sarrera.** 2. **Aurrekinak:** 2.1 Katalanaren Lege Proposamena. 2.2 Katalanaren marko juridikoa. 2.3 Lege berriaren xedeak. 3. **Katalanaren Legearen edukinaren azterketa: berrikuntzak.** a) Printzipio orokorrak. b) Erabilera instituzionala. c) Onomastika. d) Irakaskuntza. e) Komunikabide eta kultura -industriak. f) Jarduera sozio-ekonomikoa. g) Sustapen instituzionala. 3.1. Eztabaidarako betebeharrak edo neurriak: "Consell Consultiu"-ren Irizpenari aipamen berezia. 3.2. Neurri pedagogikoak. 4. **Ondorioak.**

1. Sarrera

Badira jadanik hamalau urte espainiar Konstituzioko eta Kataluniako Autonomi Estatutuaren aurrikuspenen garapenez Kataluniako *Parlament*-ak 7/1983 Legea, Hizkuntz Normalkuntzari buruzkoa, onartu zuela.

Baina legea indarrean sartu zenetik gaurdaino, Kataluniako gizartea bilakaera nabarmenen lekuko izan da, legea aldarrikatu zen garaian kontutan hartu ezin izan ziren inguruabar anitz agertzen joan diren bitartean; hots, teknologian aldaketa garrantzitsuak eman dira, baita kultura alorrean, merkataritzan, politikan, Kataluniako errealitate soziolinguistikoan, hizkuntz zuzenbidean... e.a. ere.

Honenbestez, aipatu legearen eguneratzea ezinbesteko zeregina bihurtu da eta honi ekin zitzaion joan zen urteko otsailean. Negoziaketa zein eztabaidaz betetako ia urte luze bat igaro ondoren, 1997ko abenduaren 30ean Kataluniako *Parlament*-ak Hizkuntz Politikari buruzko Legea edo *Katalanaren Lege* deiturikoa onartu zuen, 1/1998 Legea, urtarrilaren 7koaren bitartez (DOGC 1998.1.9 koa, 2553 zenb.).

Beraz, ondorengo lerroon asmoa, oro har, *Katalanaren Lege* berriaren edukina aztertzea litzateke eta zehazki, atalburu bakoitzean aurreko legearekin alderatuz aurkeztu dituen berrikuntza nabarmen nahiz eztabaidatuenean edukina. Honen harian, ezinbestekoa litzateke Kataluniako *Consell Consultiu*-ren Irizpenari aipamen egitea. Eta azkenik, etorkizunari begira, legeak praktikan ekar ditzakeen ondorioak (abantailak zein arazoak) ateratzeari ekingo zaio. Alabaina, lan honetan hasi aurretik, kokatzeko bederen, *Katalanaren Lege* berria onartu aurreko inguruabarrei aipamen labur bat egingo zaie, hots, legezko

ekimena, katalanaren marko juridikoa, legearen xedei...e.a.

2. Aurrekinak

2.1. Katalanaren Lege Proposamena

Katalanaren Legea lege proposamen gisa izapidatu zen, alegia, legezko ekimena *Parlament*-aren esku utzirik. Lege honen hastapenak 1997ko otsailaren 27an aurki ditzakegu, non Kultura Politikarako *Comissió*-ak parlamentu-ponentzia bat izendatu zuen talde parlamentario orok onar zezakeen testu baten inguruan bat etor zedin. Baina ponentziaren baitan desadostasunak besterik ez ziren sortu eta hauek, Kataluniako Gobernuaren ekimenez, alderdi politikoen arteko aldebiko bileren bidez konpondu behar izan ziren. Azkenean, urriaren 7an, Kataluniako hizkuntzaren legezko markoaren aldaketari buruz parlamentu-ponentziak aurkeztu lege proposamena *Parlament*-eko Mahaiak izapidera ametitu zuen, baita alderdi politiko ezberdinek (PP, ERC, IC-EV, PSC eta Talde Mistoak) aurkeztu botu partikularrak ere.

Orobat, abenduaren 18an, Kataluniako *Consell Consultiu*-ak, hizkuntz politikari buruzko lege proposamena helburu zuen eta ondorengo lerrotan zehazki aztertzeke parada izango dugun Irizpen¹ bat aurkeztu zuen. Aipatu, 1/1981 Legea, otsailaren 25ekoari jarraiki, Estatu mailan dagoen Estatu Kontseiluaren izaera bera duen organu honi Irizpena eskatzea derrigorrezkoa bada ere, ez dela loteslea.

Consell Consultiu-ren Irizpenak eraginda zenbait aldaketekin, arestian aipatu bezala, lege proposamenaren testua lege bilakatu zen azkenean. Haatik, 1983ko Legea ez bezala, lege berria ez zen aho batez onartu, *Parlament*-eko diputatuen %80aren adostasunez baizik. Honetara, CiU, PSC, IC-EV eta Plk legearen alde bozkatu bazuten ere, PP eta ERC legearen aurka atera ziren, halaber, hainbat emendakin aurkeztuz.

2.2. Katalanaren marko juridikoa

Katalanaren egungo zuzenbidezko markoa, 1978ko espainiar Konstituzioaren 3. artikulua batetik eta 1979ko Kataluniako Autonomi Estatutuko 3. artikulua bestalde, zehazten dute.

1. 203 zenb.dun Irizpena, Kataluniako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean 1997/12/22an argitaratutakoa.

Espainiar Konstituzioko 3. artikulua arabera, "gaztelera Estatu osoko hizkuntza ofiziala da eta Espainiako gainontzeko hizkuntzak, bakoitzari dagokion erkidego autonomoan, euren estatutuarekin bat, ofizialak izango dira ere". Bestalde, Kataluniako Autonomi Estatutuaren 3. artikulua arabera, "katalana da Kataluniako berezko hizkuntza. Halaber, Kalalunyakozko hizkuntz ofizialak² bi dira: katalana eta gaztelera. Eta Generalitateak, bi hizkuntzen erabilera normala eta ofiziala bermatuko du, bi hizkuntzen ezagutza hedatzeko behar diren neurriak hartuko ditu eta Kataluniako hiritarren eskubide zein betebeharrak dagokienez, euren berdintasun osoa lortu ahal izateko baldintzak eratu ditu".

Honetara, hauen aurrikuspenen garapenez, 7/1983 Legea, Hizkuntz Normalkuntzari buruzkoa onartu zen. Lege honek gaurdaino katalanaren erabilera normala eraendu du, Kataluniako egoera soziolinguistikoa konplexua den arren (katalanaren hitzunez gain, gaztelera ama-hizkuntzat duen hiritar anitz bizi baita bertan) katalanaren ezagutza biztanleriaren gehiengoari zabalduz.

Alabaina, arestian aipatu bezala, 1983ko Legea indarrean egon den hamalau urte luzeetan aldaketa nabarmenak eman dira eremu guztietan ezen, legearen eguneratzea eta bere garaian eginiko hitzarmen politiko eta soziala berritzea ezinbesteko zeregin bihurtu da.

2.3. Lege berriaren xedeak:

1/1998 Legea, Hizkuntz Politikari buruzkoaren bidez, eremu orotan katalanaren erabilera bermatu, sustatu eta normalitzea erdietsi nahi da oro har (Arango Bailaran aldiz, aranerarena) . Eta zehazki:

- 1983ko Legeak Administrazio eta irakaskuntza eremuan sustatutako prozesua bermatu edo tinkatzea.
- Komunikabideen zein kultura-industriaren eraentza egungo beharrei egokitzea.
- Mundu sozio-ekonomikora bideratuta dagoen hizkuntz-araudi bat ezartzea, katalanaren

ezaguera bete eta erabilera normalaren orokortzean aurrera egitearren.

- Hizkuntz eskubide eta betebeharrak dagokienez, berdintasun osoa lortu nahi da eta bereziki, bi hizkuntza ofizialak, katalana eta gaztelera alegia, ezagutu eta erabiltzeko eskubide eta betebeharren berdintasuna erabatekoa izan dadila.

- Hiritar orok katalana ezagu eta erabili dezan bermatu eta sutatzea, non katalana berezko hizkuntza izatearen ondorioetako bat den. Alegia, legearen Zioen Azalpenaren arabera, katalana *berezko hizkuntza* izateak ondorengo betebeharrak ezartzen dizkie Kataluniako botere publiko eta erakundeei: "katalana babesteko zein orokorki erabiltzeko betebeharra, baita maila orotan bere erabilera publikoa sustatzeko ere".

- Azkenik, hiritarren artean hizkuntz arazoengatik diskriminaziorik sortu gabe, jarduera publiko zein pribatutan katalanaren eta gaztelaren erabilera ofiziala eraginkorra izan dadila bermatzea. Hau, aldiz, katalana eta gaztelera Kataluniako *hizkuntza ofizialak* izatearen ondorioetako bat izango litzateke. Hots, legearen Zioen Azalpenaren hitzetan, katalana eta gaztelera hizkuntz ofizialak izateak ondorengo eskubide subjektiboak bermatzen dizkie hiritarrei: "bi hizkuntzak ikastekoa, jarduera publiko nahiz pribatu orotan askatasunez erabiltzekoa, Administrazioekiko harremanetan eurak hautatutako hizkuntzan harrera egin diezaieten, baita zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten gizarte-eragileekiko harremanetan apurka eta etengabe ere, eta hizkuntza arazoengatik diskriminaziorik ez jasateko eskubideak, hain zuzen ere.

3. Katalanaren Legearen edukinaren azterketa: berrikuntzak

1/1998 Legea, Hizkuntz Politikari buruzkoak, oro har, 7/1983 Legea, Hizkuntz Normalkuntzari buruzkoaren egitura berbera darrai. Hots, atalburu bakoitzean katalanaren erabilera eremu zehatz baten eraentzen da. Honetara, atariko atalburuan legea zuzentzen

2. **Auzitegi Konstituzionalaren 82/1986 Epaia**, ekainaren 26koaren 2. oinarri juridikoaren arabera, hizkuntza bat ofiziala da: "Botere publikoek arrezagutzen dutenean hizkuntza hori komunikabide arrunt gisa erabili litekeela edozein harreman publiko nahiz pribatutan, balio zein eraginkortasun juridiko osoarekin". Honela, hizkuntza bat ofizialtzat aldarrikatzen honako **ondorio juridikoak** eratorriko lirateke: batetik, hizkuntz baterako eskubidea zentzu aktiboan eta pasiboan; alegia, zentzu aktiboak hizkuntza bat ahoz zein idatziz erabiltzeko eskubideari aipamen egiten dio eta zentzu pasiboak haatik, mezu hartzailea botere publiko bat denean, administrazioak haren erantzuna zein hizkuntza ofizialean jasoko duen hautatzeko duen eskubideari, hain zuzen ere. Bestalde, botere publikoek beren gain hartu behar dute derrigorrezko hezkuntzan hizkuntz ofizial horren irakaskuntza eraginkorra izan dadila bermatzeko betebeharra; hau da, ez da aski hizkuntza ofizialaren irakaskuntza bermatzea, baizik eta beharrezkoa da irakaskuntza modu eraginkorrean antolatzea. Azkenik, Administrazioak hizkuntza ofizialaren irakaskuntza bermatzen duen heinean, ezin da Administrazioak darabilen hizkuntza ofizialaren ezagutza ezarri alegatu.

duen printzipio orokorrak ezartzen dira eta gainerako sei atalburuetan, katalanaren erabilera erakundeetan, onomastikan, irakaskuntzan, komunikabide eta kultura-industrietan, jarduera sozio-ekonomikoan eta katalanaren sustapena erakundeetan hain zuzen ere eraentzen dira.

Beraz, ondorengo lerrootan atalburu bakoitzean agertzen diren berrikuntza nabarmenenak aipatzeari ekingo zaio:

a) *Atariko Atalburua: printzipio orokorrak*

- "Katalana, berezko hizkuntza gisa, Kataluniako Estatuko Administrazioak, *berak zehazten duen moduan*, gainontzeko erakundeek eta, orokorrean, enpresek zein zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten entitateek lehentasunez erabiltzen duten hizkuntza" dela xedatzen du legeak.

- "Hizkuntz eskubideak zehazki bermatzeko, Generalitateko Administrazioara eta *Síndic de Greuges-era*" (Arartekoa) zuzen daitezke hiritarrak. Lehen ere bazegoen honetarako aukera, baina berrikuntza, legeak esanbidez aipatzean datza.

b) *I. Atalburua: erabilera instituzionala*

- **Enpresa publikoak, emakida bidezkoak eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenak** hizkuntzaren normalkuntza prozesuan sartzen ditu *Katalanaren Lege* berriak. Hau da, "Administrazioei (Generalitatekoa, lokala eta Kataluniako gorporazio publikoak) menpekotuta dauden enpresa eta haien zerbitzuen emakidadunei euren barne nahiz kanpo harremanetan katalana erabiltzeko betebeharra" ezartzen die legeak. Eta "katalanaren hizkuntz esparruan administratuekiko dituzten harremanei dagokienez (jakinarazpen eta komunikazioak) ohikotasunez erabiltzekoa, baina gaztelera erabiltzearen kalterik gabe hiritarrek hala eskatuz gero".

- **Bestalde, Kataluniako Estatuko Administrazioarekiko zein Justizi Administrazioarekiko hiritarrek dituzten harremanetan**, eurak hautatutako hizkuntza ofizialean harrera egin diezaieten eskubidea arrezagutzen die legeak hiritarrei.

- **Dokumentu publikoei dagokienez**, "egilesle anitz izaki eta euren arteko

adostasunik ezean", legeak "dokumentua bi hizkuntz ofizialean idazteko betebeharra" ezartzen du. Eta "hautaketa esanbidez egin ezean, katalanez idatziko" dela dio. Halaber, zerbitzu publikoen egikaritza pribatuan diharduten fede-emaile hauen bulegoei (notariak...) aipamen egiten die lege berriak, "hiritarrei beraiek hautatutako hizkuntz ofizialean harrera egiteko moduan egon behar" dutela ezarriz, baita "bertan lan egiten dutenek bi hizkuntz ofizialen ezagutza egoki eta askia izan behar" dutela ere.

- **Dokumentu pribatuen kasuan**, zeinei aurreko legeak ez zien aipamenik egiten, "edozein hizkuntzetan idatzitako dokumentuak baliozkoak" izango direla dio lege berriak, baita "kontratuzkoak izan edo ez, alderdiek hautatutako Kataluniako bi hizkuntz ofizialeko edozeinetan idatzitako dokumentuak" ere. Alabaina, "hainbat kontratu (besteak beste, atxekipenezkoak, baldintza orokorrak dituztenak...) kontsumitzaileek hautatutako hizkuntzan idatzi behar dira eta ale banandutan, katalanez eta gaztelerez, bezeroen eskura egon behar dute". Orobat, "finantz-erakundeek beraien bezeroei eskaintako dokumentuak (txekek, talonarioak, pagareak...) gutxienez katalanez idatzi behar" dira. Betebehar hauek ez betetzea aipatu enpresa zein entitateei egozgarri zaienean, 1/1998 Legearen 5. Xedapen Gehigarriaren arabera, "kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskariak asetzeari bidegabe uko egitea izango litzateke eta ondorioz Merkatuko Disziplinari buruzko eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babeserako Legeak³ aurrikusten duen zehapen eraentza ezarriko zaio". Lege honen V. atalburuak zehapenak eraentzen ditu eta bertan, urrapenaren izaeraren arabera (arina, larria eta oso larria, alegia) ehun milioietaraino hel daitezkeen zehapenak aurrikusten dira. Halaber, zehapen osagarriak ere aurrikusten dira, baita hertsapenezko isunak ere.

- **Azkenik, Erregistro publikoen kasuan**, "Kataluniako Erregistro publiko orotan, izaera administratiboa dutenetan salbu, idazpena jatorrizko dokumentua idatzirik dagoen hizkuntza ofizialean edo adierazpena egin den hizkuntzean egin beharko da". Orobat, fede-emaile publikoen kasuan bezala, erroldetako bulegoei eta bertako langileei aipamen egiten zaie

3. Alegia, 1/1990 Legea, urtarrilaren 8koa

PRIETO, E. Katalanaren Lege berria: orainaldia eta etorkizuna. Eleria. 2, 1997, 47-56

legean, galdapen berdinak ezarri. Azkenik, "bulego hauetan hiritarren eskura dauden formula-orri eta gainontzeko inprimakiei dagokienez, gutxienez katalanez idatzi behar" direla dio legeak.

Beraz, laburbilduz zera esan daiteke katalanaren erabilera instituzionalari buruz: orokorrean, hiritarrek Administrazio ezberdinekiko dituzten harremanetan badutela ahoz zein idatziz katalanez zuzentzeko eskubidea, baita haiek katalanez harrera egin diezaieten ere. Halaber, idatzizko harremanei dagokienez, badute hiritarrek katalanez erantzuna jasotzeko eskubidea, alegia, jakinarazpen eta komunikazioak jasotzekoa; ahozko harremanetan ordea, legeak ez du aurrikusten edo bermatzen katalanez erantzuna jasotzeko eskubiderik.

c) II. Atalburua: onomastika

Atalburu bezala berria den arren, bertan ez da berrikuntza nabarmenik ageri.

d) III. Atalburua: irakaskuntza

- Oro har, "hezuntza maila eta mota orotan katalana irakaskuntzako berezko hizkuntza izango da eta edozein mailatako ikastetxeek katalana ohiko adierazpen tresna bihurtu behar dute".

- Zehazki, "ez-unibertsitate irakaskuntzari dagokionez, katalana ohikotasunez adierazpen nahiz ikasteko hizkuntz gisa erabili beharko da" eta 1992. urtetik aurrera, lehen irakaskuntzan dekretu bidez indarrean egon den "hizkuntz murgilpen sistema" (zeinaren arabera, hurrek lehen irakaskuntza osoa euren ohiko hizkuntzan, katalanez edo gazteleraz, jasotzeko eskubidea duten), orain lege bilakatu da. **Unibertsitate irakaskuntzan ordea, besteak beste, honako betebeharrak ezartzen ditu legeak katalana sustatzearren:** "irakaskuntza jardueretako eremu orotan, beste jardueretan eta ikerketan katalanaren erabilera bermatu eta sustatzeko egoki diren neurriak hartzekoa".

e) IV. Atalburua: komunikabide eta kultura-industriak

- Aurreko legearen ildo bera jarraiki, **Irrati eta telebista publikoak** badira, hots "Generalitateak nahiz Kataluniako

gorporazio lokalek kudeaturikoak, ohikotasunez erabili beharreko hizkuntza katalana da".

- Aldiz, **emakida bidezko irrati eta telebista** badira, "kable bidez banatzen den ikus-entzunezko programazioari dagokionez, berezko ekoizpeneko programen emisio edo emate denboraren %50 gutxienez katalanez izan dadila bermatzeko betebeharra" ezartzen du legeak. Betebehar hau halaber, **kudeaketa pribatuko telebisten emakidadunei nahiz Generalitateak xedatutako emakidazko irrati saioei** ezargarri zaie. Baina azken honetan, "Generalitateko Gobernuak, entzulegoaren ezaugarriak aintzakotzat hartuz, badu erreglamendu bidez aipatu ehuneko hori aldatzerik". Bestalde, "Generalitateko Gobernuak emakidak esleitzeko orduan kontutan hartu beharreko irizpideen barne katalanaren erabilera sartu behar du". Zentzu honetan, lehentasuna izango dute ezarritako gutxienekoetatik gora katalana darabilten irrati zein telebista emisorek. Azkenik, "irrati eta telebista emisorek euren programazioetan, abestutako musikaren %25 gutxienez katalanez edo araneraz izan dadila bermatu behar dute". 1/1998 Legearen 5. Xedapen Gehigarriaren arabera, "betebehar hauen ez betetzea emakidaren funtsezko baldintzen ez betetze bat izango litzateke eta ondorioz dagokion lege eraentzaileek⁴ aurrikusten duten zehapen eraentza ezarriko zaio". Lege hauen artean, kable bidez banatzen den ikus-entzunezko programazioa eraentzen duen legeak esaterako, bere 14. artikuluan zehapenak eraentzen ditu, zeinak urrapenaren izaeraren arabera (arina, larria eta oso larria, alegia), bostehun mila pezetetatik hamabost milioietaraino hel daitezkeen.

Laburbilduz, eremu honetan legeak programazio edo pantaila hizkuntz-kuotei eta zehapenei heldu die katalanaren erabilera bermatu, normaldu eta sustatzeko.

- **Kultura-industriei** dagokienez, aurreko legeak katalanaren erabilera sustatzeko ezartzen zituen neurriak mantendu eta indartzen ditu lege berriak. Honela, aipatzekoa da zinematografi eskaintzan esaterako, katalanaren agerpen

4. 1/1998 Legea ondorengo legeetara eragortzen da: batetik, 8/1996 Legea, uztailaren 5 ekoa, kable bidez banatzen den ikus-entzunezko programazioa eraentzen duena eta bestalde, Estatuko lege hauetara: 31/1987 Legea, abenduaren 18koa, telekomunikabideak eraentzen dituen eta 25/1994 Legea, uztailaren 12koa, zeinaren bidez 89/552/CEE Direktiba espainiar ordenamendu juridikoan sartzen den.

garrantzitsu bat bermatzearen Gobernuak erreglamendu bidez hizkuntz-kuotak ezar ditzakeela. Eta berrikuntza gisa, hizkuntz eta informatika industriei aipamen egiten zaie, Generalitateko Gobernuari, katalana darabilten ekoizpenen ikerketa, banaketa eta merkaturatzea sustatzeko betebeharra ezarriz.

f) V. Atalburua : *jarduera sozio-ekonomikoa*

Atalburu guztia berria da eta oro har, zera aipatu behar da: kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntz eskubideak bermatzearen, enpresa publikoak, emakida bidezkoak eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenak hizkuntz normalkuntzaren prozesuan eraginkorki sartzen direla.

- Honela, "Generalitateko zein gorporzio lokaleko enpresa publikoak eta zerbitzu publikoak kudeatu edo ustiatzen dituzten euren emakida bidezko enpresek, barne jardueran nahiz dokumentazioan katalana ohikotasunez erabili behar dute, baita errotulazio, erabilpen argibide, etiketatzean eta enbalajearen ere". Halaber, "enpresa horiek ohikotasunez katalana erabili behar dute katalanaren hizkuntz esparruan bizi diren pertsonen zuzentzen dizkieten komunikazio eta jakinarazpenetan, fakturak eta gainontzeko trafiko dokumentuak barne. Hiritarrek ordea, hala eskatuz gero, badute haiek katalanez edo gazteleraz jasotzeko eskubidea".

- "Zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresa eta entitate publiko edo pribatuei (Telefonica adibidez) dagokienez (garraio, horniketa, komunikabide...) errotulazio eta megafonia bidezko komunikazioetan gutxienez katalana erabili behar dute". Betebehar berdina ezartzen zaie Katalunian bizi diren pertsonen komunikazio eta jakinarazpenak, fakturak eta gainontzeko trafiko dokumentuak barne, zuzentzerakoan. Halere, faktura eta gainontzeko trafiko dokumentuei dagokienez, legeak enpresei gutxienez katalana erabiltzeko betebeharra ezartzen badie ere, zera esan behar da: batetik, hiritarrek hala eskatuz gero, gazteleraz jaso ditzaketeela eta bestalde, Estatuak zerbitzu horiek zuzenean edo zeharka (bere enpresa edo entitate bidez) eskaintzen dituztenean (Correos adibidez) baduela haiek antolatzeako eskuduntza.

Aurreko bi balizkoetan, betebehar hauek ez betetzea aipatu enpresa zein entitateei egozgarri zaienean, 1/1998 Legearen 5. Xedapen Gehigarriaren arabera, "kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskariak

asetzeari bidegabe uko egitea izango litzateke eta ondorioz, merkatuko disziplinari buruzko eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesten dituen legeak aurrikusten duen zehapen eraentza ezarriko zaio".

Beraz, legeak hemen ere betebeharren betekizuna bermatzeko edo enpresak *limurtzeko* zehapenak darabiltza.

- "Generalitatearekin edo gorporazio lokal batekin kontzertu bat edo lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dutenek edo haiek emaniko dirulaguntza baten onuradun diren enpresek, gutxienez katalana erabili behar dute jendeari zuzendutako errotulazio, oharpen eta dokumentazioan".

- Halaber, "Katalunian ekoizkinak saltzen edo zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa eta establezimenduek kontsumitzaileei Kataluniako edozein hizkuntz ofizialean harrera egiteko moduan egon behar dute".

Kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako informazioari dagokionez:

."kontsumitzaileei zuzentzen zaizkien saltoki publikoetako seinaleztapen, informazio orokorra eskaintzen duten kartelek eta zerbitzuen eskaintza dokumentuek, gutxienez katalanez idatzirik egon behar dute (prezioen zerrendak, jatetxeetako kartak...). Alabaina, industri jabaria eraentzen duen legeriak babesten dituen marka, errotulazio eta merkataritza-izenei ez zaie betebehar hau ezartzen" (*Corte Inglés* izenari adibidez). Betebehar hauen ez betetzea aipatu enpresa eta entitateei egozgarri zaienean, 1/1998 Legearen 5. Xedapen Gehigarriaren arabera, "kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskariak asetzeari bidegabe uko egitea izango litzateke eta ondorioz merkatuko disziplinari buruzko eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako legeak aurrikusten duen zehapen eraentza ezarriko zaio".

."Katalunian banatzen diren ekoizkinen etiketatzean, enbalajearen eta erabilpen argibideetan agertzen diren datuak katalanez ager daitezke". Alabaina, "derrigorrez gutxienez katalanez agertu behar dira jatorri, kalitate edo komarka izendapena duten ekoizkinen derrigorrezko datu eta borondatezko informazio gehigarriak, baita artisau-ekoizkinenak ere" (zenbait ardo, cava, oliorenak...).

1/1998 Legearen 2. Xedapen Iragankorrak enpresak legearen aurrikuspenei egoki daitezzen, epe batzuetan ezartzen ditu: oro har urte bitakoa,



autonomoen kasuan bost urtetakoa eta zenbaitzuetan, epea luzeagoa izan daiteke ere.

g) VI. Atalburua: sustapen instituzionala

Oro har, 1983ko Legearekin alderatuz, atalburu honek bere hartan darrai.

3.1 Eztabaidarako betebeharrak edo neurriak: "Consell Consultiu"-ren Irizpenari aipamen berezia

Oraindaino aipatu berrikuntza hauen artean, legea onartu berria den arren, badago makina bat gai, betebeharrak edo neurri dagoeneko eztabaida sortu duenik eta etorkizunari begira ere sor dezakeenik. Hauen artean esanguratsuak dira bereziki:

- Batetik, katalana Kataluniako berezko hizkuntza dela eta, lehentasunez erabili beharreko eremuen zabaltzea. Honen harian, *Katalanaren Lege* proposamena xede zuen *Consell Consultiu*-ren Irizpenak Kataluniako Estatuko Administrazioa betebeharrak horren hedatzearen (2.2.b art.)

konstituziokotasuna zalantzan jarri zuen ondorengo arrazoietan oinarrituz: Kataluniako lurralde eremuan katalanaren erabilera zehazten duen Generalitateko araudiak Kataluniako Estatuko Administrazioa ukitzen eta lotesten badu ere, bera dela eskudun bakarra bere organuei legezko eraientza hori ezartzeko esanaz. Honela, Konstituziokotasuna ekiditearren, lege berria "berak (Kataluniako Estatuko Administrazioak, alegia) zehazten duen moduan" koma-arte gehitu da. Orobat, antzeko zerbait jazo zen Kataluniako Estatuko Administrazioaren menpe pertsona zehatzei ukitzen dieten zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei (garraio, hornidura, komunikabide eta beste batzu...) arestian aipatu betebeharrak hedatu nahiarekin, non *Consell Consultiu*-ak hasera baten lege proposamenak ezartzen zuen betebeharraren konstituziokotasuna zalantzan jarri zuen, honako arrazoiak emanez: enpresa horiei betebeharrak ezartzeko, Kataluniaren barne koofizialtasunaren irizpideak enpresa horiei ezartzeko eskudun bakarra Estatu (eta ez Generalitatea) bera zela esanaz, alegia. Hau dela eta, lege berria "zuzenean edo bere enpresa eta entitateen bidez (zeharka) aipatu zerbitzuak eskaintzen dituenen, hauek antolatzeko Estatuak duen eskuduntzaren kalterik gabe" klausula (31.3 art.) gehitu da. Bestalde, eztabaidagarria izan daiteke ere **enpresa zein zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten zenbait entitateek** katalana lehentasunez erabili behar izatearen zilegitasuna. Batetik, betebeharrak honek partikularren arteko harremanetan Estatu batek esku hartzeko duen ahalmena gaitzen duelako, hots, proportzionaltasun printzipioaren aurka joango litzatekeelako. Bestalde, Konstituzioak eta Estatuak ezartzen duten koofizialtasuna ez duelako errespetatzen; hau da, Katalunian bi hizkuntz ofizialak izanik, heritarrei bietako bat aukeratzeko arrezagutzen zaien eskubidea urratzen duelako, gaztelaren aukera baztertuz zehazki. Beraz, bada pertsonen aukera askearen esku utzi behar den eremurik, partikularren arteko harremanek osatzen dutena, alegia. Eta hau, hizkuntz eskubide edo betebeharrak batek noraino muga edo sakrifika dezakeen zehaztea ezinbestekoa izango litzateke.

- Halaber, legeak zenbait jardueretan (sozio-ekonomikoak batik bat) "katalana gutxienez erabiltzea" edo gisa honetako betebeharrak ezartzeari dagokionez, *Consell Consultiu*-ren Irizpenari jarraiki, mota honetako esakerei gaztelaren baztertzea ekar lezakete.

- Lehen irakaskuntzan hizkuntz murgilpen sistema legez ezartzea ere (arau orokorraren salbuespen izango litzatekeena) eztabaidagarria izan daiteke, bere kasuan, katalanaren edo gaztelararen baztertze edo diskriminazioa ekar baitezake (nahiz eta gero ikasketa planen egituraketak nahitaezko hezkuntzaren amaieran bi hizkuntz ofizialak normaltasunez eta zuzenki erabili ahal izatea bermatu). Halere, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinari jarraiki, *Consell Consultiu*-ren ustetan, salbuespen honen izatearen arrazoia hemen legoke: hezkuntza eskubidearen hizkuntz edukinak, haurrentzat ulerkorra gerta daitekeen hizkuntz baten hezkuntza jasotzeko eskubidea barneratzen duela, ikasleak hezkuntza osoa bere berezko hizkuntzan jasotzeko eskubiderik egon ezin daitekeelarik.

- Katalanaren erabilera instituzionalaren baitan badago ere polemikoa izan daitekeen betebeharririk. Honela, aipatzekoa da lege berriaren 17.2 artikuluan ezartzen dena, zeinaren hitzei jarraiki **Kataluniako Erregistro publiko orotan**, izaera administratiboa dutenetan salbu, idazpena jatorrizko dokumentua idatzita zegoen edo adierazpena egin zen hizkuntz ofizialean egiteko betebeharra ezartzen den. Hau dela eta, *Consell Consultiu*-k bere Irizpenean atal honen Konstituzioarekiko bateragarritasuna zalantzan jarri du, era honetan arrazoituz: alegia, Estatuko erregistroen funtzionamendua zeharka ukitu eta ofizialtasun bikoitzaren printzipioarekin bat badator ere, *Consell Consultiu*-ren ustetan batetik, Auzitegi Konstituzionalak emaniko 87/1997, apirilaren 24ko Epaiaren aurka doa, zeina Merkataritzako Erregistroaren Erreglamentuko 36.1 artikulua dela eta eman zen. Epai honetan, besteak beste zera esaten da: Estatuari dagokiola merkataritzako erroldetako idazpenak zein hizkuntzatan egin behar diren zehaztea. Halere, Kataluniako Erkidego Autonomoan kokatutako errolda lurraldetarren erabilera Estatuak eraentzen duenean, honek hizkuntzen ofizialtasun zein normaltasunari dagozkion baldintza orokorrak errespetatu behar dituela dio. Bestalde, *Consell Consultiu*-ren ustetan, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinarekin ez letorke bat arestian aipatu artikulua, nonbait Estatuaren eskuduntzako gaietan (errolda publikoak esaterako), Erkidego Autonomoari hizkuntz gaiari dagozkion printzipioak ezartzea badagokio ere,

Estatuari baitagokio bere antolakuntzaren baitan haiek ezartzea.

- Baina polemikoa izan daitekeen neurririk badago, hauexek ditugu: batetik, Irrati, Telebista zein Zinemagintzarako Legeak aurrikusten dituen **programazio edo pantaila hizkuntz-kuotak** eta bestalde, legeak bere 5. Xedapen Gehiagarrian zeharka ezartzen dituen **zehapenak**. Dena den, aipatu *Consell Consultiu*-k bere Irizpenean ez duela neurri hauen zilegitasuna zalantzan jarri. Honetara, kuotei dagokienez, katalana babestu eta bere erabilera bermatzeko neurri batzuk lirateke, zeinak katalanaren ezagutza bermatzeko beharrezkoak diren neurrien artean leudekeen. Gainera, *Katalanaren Legeak* neurri hauen bidez katalanaren erabilera normaltzeko Kataluniako Autonomi Estatutuak ezartzen duen aginduari (3. art.) men besterik ez lioke egingo. Halaber, funtzionario, irrati eta telebista emisorek, enpresa eta merkataritzako establezimenduek legeak ezarritako betebeharrak bete ezean legeak ezartzen duen zeharkako zehapen eraentzaren kasuan ere *Consell Consultiu*-k ez du, esan bezala, bere zilegitasuna eztabaidatu. Legeak zehapenak ezartzeko darabilen teknikari dagokionez, indarrean dauden beste lege batzuek (Funtzio Publikoarena, Merkaturako Disziplinari buruzko eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babeserako Legea, kable bidezko telebista eraentzen duena...) ezartzen dituzten zehapenetara eragortzen da. Halere, esan beharra dago kasu honetan Konstituzioarekiko guztiz bateragarria izango litzatekeela lege honek zuzenean zehapen eraentza bat ezarri izana, lege honek eraentzen duen gai sustantiboa Kataluniako Erkidego Autonomoaren eskuduntzen barne baitago. Honela, Auzitegi Konstituzionalaren doktrina jarraiki, Generalitateak koofizialtasun eraentzaren aspektu zehatzak arautzeko eskuduntza duenez, Lege honen bidez badu Konstituzio zein Estatutuaren ordenuarekiko egokiak direla uste duen gaietan urrapenak aurrikusterik baita zehapenak ezartzerik ere.

Azkenik, aipatu *Consell Consultiu*-ren ustetan "legeak hiritarrei zehapenik ezartzen ez diela" adierazteak (5. Xedapen Gehigarria) Konstituzioko 9.3 artikulua bermatzen duen segurtasun juridikoaren printzipioa urratuko lukeela, nonbait xedapen horrek legegileari argitasunez agertzeko betebeharra ezartzen dio eta bereziki, inolako zalantzarik sor ez dezakeen gai honetan, hots, zehapenen gaian.

3.2 Neurri pedagogikoak

Legeek betebeharrak ezartzeko zein aginduak emateko indarra edo ahalmena ez ezik, neurri pedagogikoak ere ezar ditzakete. Hauen bidez hiritarrei ahalmen edo eskubide bat egikaritzeko aukera badutela adierazten zaie, hura bermatuz, noski. Zentzu honetan, legearen Zioen Azalpenaren hitzetan "hiritarrei dagokienez, legeak izaera adierazlea dauka eta soilik Administrazio eta enpresa zehatzei ezartzen dizkie betebeharrak...". Beraz, *Katalanaren Legearen* artikulatua zehar gisa honetako neurriekin topa gaitzke esaterako, hizkuntz eskubideak eraentzen diren atalean, non legeak hiritarrei euren hizkuntza erabiltzeko eskubidea babesteko Auzitegietara zuzen daitezkeela adierazten dien, baita hizkuntz eskubideak zehazki bermatzeko Generalitateko Administrazioa eta *Síndic de Greuges* ere. Haatik, babes judizialari dagokionez, ez du legeak zein eskumeneko auzitegietara jo behar den zehazten, ez baitu horretarako eskuduntzik. Beraz, aukera honek antzu geratzeko arriskua izango luke.

Halaber, hiritarrei Kataluniako Estatuko Administrazioarekin zein Justizi Administrazioarekin, itzulpen beharrik gabe, ahozko nahiz idatzizko harremanetan katalana edo gaztelera erabiltzeko eskubidea bermatzen zaie, baita beraiek hautatutako hizkuntza ofizialean, katalanez edo gaztelera, harrera egin diezaieten ere (baina ez erantzun diezaieten). Egoera hau aurreuposamendu bezala harturik, demagun hiritar batek hizkuntz ofizialtzat katalana erabiltzea hautatzen duela eta Estatuko Administrazioak katalanez harrera egiteko bitartekoak izaki baina gaztelera erantzuten diola. Edo alderantziz, Generalitateak gaztelera harrera egiteko bitartekoak izaki eta administratuari katalanez erantzuten diola honek gaztelaren aldeko aukera egin duenean. Bi balizko hauen aurrean ondoko galderak sor dakizkiguke: batetik, zein neurritan egokitu behar zaion Administrazioa administratua egiten duen hizkuntz aukerari eta bestalde, ez egokitzeak, hizkuntz arrazoiगतिको diskriminaziorik lekarkeen.

Edozein kasutan, aukera zein eskubide hauek makina batean antzu geratzeko arriskua badakarte ere, legeak helburu nagusizat duen katalanaren erabilera babestu, sustatu eta normaltzearrekin bat datozen neurriak dira; agian ez ezinbestekoak, baina bai ziurrenik etorkizunari begira garrantzitsuak izan daitezkeenak, oraingoz errealitatean zeintzu ondorio sor ditzaketen ikusteko astirik egon ez bada ere, aurreko legearekin alderatuz aurrerapausu bat suposatuta baitute.

4. Ondorioak

Katalanaren Lege berriaren "bizitza" laburra dela eta, dagoeneko ez du alderdi politikoen arteko eztabaidak baino pizteko astia eman.

Halere, *Katalanaren Lege* berriari buruzko kronika honekin amaitzeko, etorkizunari begira errealitatean sor ditzakeen balizko ondorioak aurrikusteari eta arazoak azaltzeari ekingo zaio ondorengo lerroetan, hauek liratekeelarik aipagarri:

- Batetik, baliteke lege berriak xede duen katalanaren erabilera gizarteko eremu orotan sustatzea erdiesteko, 1983ko legeak katalanaren bermean aurrikusitako neurriak indartu behar izana. Haatik, eztabaidagarria izan daiteke zenbait kasutan hautatutako tresnak, proportzioz kanpokoak zein hertsakorrek gerta daitezkeenak (zehapenak esaterako) alegia, helburu hori lortzeko egokienak izan daitezkeen edo ez. Hau da, hizkuntz eskubideekin topatzerakoan, mugen definizio eza eta labankortasuna nagusi den eremu batekin eginen dugu topo. Horregatik ondoko zalantza sor dakiguke: noraino izan daitezkeen askatasun zein aniztasun printzipioekiko bateragarria hizkuntz bat baztertzea (gaztelera), katalanaren erabilera ia eremu guztietan *inposatuz*.


- Bestalde, egia da funtzionario, komunikabide zein enpresei ezarritako hizkuntz betebeharrak betearazteko (honetarako epe batzu finkatzen direlarik) edo haiei *limurtzeko* lege berriak zehapenei heldu diela. Baina, zein izan daiteke ordea neurri honen islada errealitatean? Beste mota bateko betebeharrak (fiskala esaterako) ez betetzeak lekarkeen berdina? Neurria ezartzekotan, ziurrenik kautelaz edo arreata handiz egingo litzatekeela edo bere kasuan, ezerezean geratzeko arriskua izango lukeela argi aurrikus daiteke; batetik, *Katalanaren Legeak* zeharka ezartzen dituen zehapenen munta ikusirik gatazkak besterik ez litzukeelako sortuko eta bestalde, urrapenaren izaera ikusirik, katalanaren erabilera sustatu, indartu edo *inposatzeko* ezartzen diren betebeharrak ez betetzea alegia, gisa honetako aurrikuspenek Konstituzioak eta Kataluniako Estatutuak ezartzen duten koofizialtasun printzipio bera urratuko luketelako.

- Halaber, arestian aipatutako hainbat eskubide edo aukerak ere, hots, hizkuntzen babes judiziala, Administrazioarena eta *Síndic de Greuges*-ena, etorkizun bera

eduki dezakeela aurrikus
antzu geratzeko arriskua
bereziki babes judizialar
luzea eta garestia ez ezi
aurrikuspen mugatuen a
auzitegi den eskudun ze
eskuduntzik ez baitu) se
zalantza baino ez du sor

- Azkenik, Administrazio
publikoak eskaintzen dit
eragileek hiritarrei eurak
hizkuntza ofizialean, katal
gazteleraz, harrera egin
bermatzen zaien eskubid
zenbait kasutan arazoak
aurresan daiteke; batetik
hiritarrei ahoz eurak hau
hizkuntz ofizialean, katal
gazteleraz, erantzun die
arrezagutzen eta bestald
ere, noraino egokitu beh
aukerei zalantza sor daite

Esanak esan, etorkizuna
txanda eta bere esku dago. *Pa*
konfiantza osoa jarri duen *Kata*
honen edukinak Kataluniako gi
dizkion aldaketen berri ematea



PRIETO, E. Katalanaren Lege berria: orainaldia eta etorkizuna. Eleria. 2, 1

